BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**PRENTSA-OHARRA**

# "Alter ego" erakusketa barria Batzar Nagusietan

- **Andrea Abaliaren eta Lide Kaltzadaren lanak izango dira erakusgai, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta UPV/EHUk artista gazteei bultzadea emoteko sinaturik daben hitzarmenaren esparruan**

*Bilbon, 2013ko martiaren 5an*

Batzar Nagusien erakusketa-aretoak "Alter Ego" erakusketa barria hartuko dau apirilaren 6 (e)ra arte, barriro be jentearen aurrean jarteko UPV/EHUko Arte Eder Fakultateko artista gazteek egindako lana, hori guztiori Bizkaiko Batzar Nagusiek Euskal Herriko Unibertsitateagaz daben lankidetza hitzarmenaren barruan. Oraingoan Lide Kaltzadaren eta Andrea Abaliaren margo eta argazkiak buztarturik eta alkarren osagarri egongo dira Batzar Nagusien erakusketa-aretoan (Hurtado de Amezaga kaleko 6an). Sarrera doan da.

Andrea Abalia eta Lide Kaltzada margoa eta argazki ikutuak baliaturik jarduten daben artista sortzaileen tradizino barrian kokatzen dira. Baliabide plastikoak eta ikonikoak jakituriaz eta sensibilidadez buztartu eta narrazino edegiak atontzen ditue, ikusleei esku emonaz erretratatutako pertsonaien aurrez aurre jarteko eta hareen iraganean, izaeran eta etorbidean arakatzeko.

Artista bion lanek egikera zaindua dabe eta ikusleen begiradak erakarten ditue, artelanek dagerren fikzinoa egiazkotasunez horniduz. Artelanek bat-bateko harridurea eragiten dabe eta begira-begira, zehaztasunen bila, paretea lortzen dabe. Paradoxaren eta ironiaren arteko nahastearen zertzeladak begitandu leitekez, satirikotasunaren ostean tragikotasuna eta doilorra dagozala.

MARTXOAREN 8a DALA-TA, BATZAR NAGUSIEN OMENALDIA EMAKUMEZKOENTZAKO.

Aurkezpen ekitaldia Emakumezkoen Nazinoarteko Eguna (martxoaren 8an) ospatzen dan astean zala-ta, Ana Madariaga Batzar Nagusietako Lehendakariak aldarrikapena egin gura izan dau emakumezko gazteen artearen alde, eta horrenbestez, emakumezko guztien alde. Aukeratutako artista bion "belaunaldia gure historia guztian inoizkorik ondoen prestautako euskal emakumezkoena da" esan dau Ana Madariagak, eta generatu dau emakume artista bien lanak joaken "izatearen eta lekuaren bila dabilzala, non eta, batera edo bestera, hainbat arlotan, arlo guztietan behar bada, baztertu egiten gaituen krisialdiko gizarte honetan".

Emakumezko biren bizipenetan arakatzen dauen erakusketa honen eskutik, Madariagak gogotara ekarri dau oraindik egiteko "asko" dagoala emakumeen buruzagitza arlo

politikoan sendotuko bada. Haratago joan eta hurrengoa ganeratu dau: “Zer esango dogu ba, ekonomiari, enpreseari edo hedabideei erreparetan badeutsegu? Holakoetan bai ikusi geinkezala emakumeakazko adibide ia iraingarriak!”. Horren adibideak jarri eta esan dau Euskadin alkateen %22a besterik ez dirala emakumezkoak, edo munduko parlamentuetan emakumezkoak batez-beste ozta-ozta heltzen dirala %19,8ra eta, beraz, urrun dagozala Batzar Nagusiotan lortutako parekotasunetik, %47a hain zuzen.

Bilboko Hurtado de Amezaga kalean dagoan Batzar Nagusien erakusketa-aretora hurreratu ezkero, aukera ederra egongo da Euskal Unibertsitate publikotik ernetako artista bizkaitar gazte bion gaitasun eta talentu handiaz jabetzeko. “Alter Ego” erakusketea “Generoa gora-behera, arte ona, kalidadezko eta etorkizun handiko arte gaztea” dala azpimarratu dau Ana Madariagak. Bisitariek ikusi ahal izango dituen emakumezkoen erretratuak “izatez oso kritikoak dira, formen aldetik txeratsuak diran arren”.

Erakusketea astegunetan, astelehenetik barikura, 9:00-21:00 ordutegian ikusi leiteke, eta zapatuetan eguerdiko 13:00ak arte.

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

**NOTA DE PRENSA**

# "Alter ego" nueva exposición en las Juntas Generales

- **La muestra acoge el trabajo de Andrea Abalia y Lide Kaltzada, dentro del proyecto de colaboración que el Parlamento de Bizkaia mantiene con la UPV/EHU para la promoción de jóvenes artistas.**

*Bilbao, a 5 de marzo de 2013*

La Sala de Exposiciones de las Juntas Generales acoge la muestra "Alter Ego", un nuevo proyecto expositivo que nace nuevamente de la colaboración que mantienen el Parlamento vizcaíno y la Universidad del País Vasco, con el propósito de que la sociedad visualice la obra desarrollada por jóvenes artistas salidos de su Facultad de Bellas Artes. Las obras pictóricas y fotográficas de Lide Kaltzada y Andrea Abalia, dialogarán en la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales (C/Hurtado de Amezaga, 6) hasta el 6 de abril. La entrada es libre.

Andrea Abalia y Lide Kaltzada se inscriben en la nueva cantera de artistas creadoras de relatos a través de la pintura y el retoque fotográfico. Consiguen integrar con sabiduría y sensibilidad los recursos plásticos e icónicos para elaborar narraciones abiertas que invitan a los espectadores a confrontarse con los personajes retratados –todas mujeres- e indagar en su pasado, su identidad y su destino. En el caso de Andrea Abalia, esta exposición es una parte de las conclusiones de su tesis doctoral "Lo siniestro femenino".

En ambos casos, una cuidada factura formal de las obras, atrae la mirada de los espectadores, aportando credibilidad a la ficción representada. Las obras sorprenden desde el principio pero son para detenerse y bucear en los detalles. Se perciben en ellos matices en donde se entrecruzan la parodia o la ironía, y una sátira que esconde lo trágico o lo siniestro. Las 18 obras expuestas funcionan como espejos que rebotan los "egos" reales de los visitantes, especialmente de las mujeres.

HOMENAJE DE JUNTAS A LAS MUJERES ANTE EL 8 DE MARZO

En la presentación, la presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, Ana Madariaga, ha aprovechado para hacer una alegato a favor de la prometedora cantera femenina en el mundo del arte y, en extensión, de la mujer en la semana en la que se celebra el Día Internacional de la Mujer (el viernes, 8 de marzo). Las artistas elegidas forman parte de la generación de mujeres vascas "mejor formada de nuestra historia" y, sin embargo, sus obras reflejan un punto de vista distinto, "una búsqueda de la identidad y del lugar que les corresponde en una sociedad en crisis que nos discrimina, de una u otra manera, todavía en demasiados aspectos", ha dicho.

En esta exposición, que indaga en los retos, preocupaciones y vivencias de dos mujeres,

Madariaga ha querido recordar que queda "mucho" para lograr consolidar el liderazgo femenino en todos los ámbitos, incluido el político. "¿Y qué decir de la economía y la empresa o de los medios de comunicación, por poner ejemplos casi lacerantes?", se ha preguntado. Para ello, ha puesto el acento en varios hechos discriminatorios, como el que el 22% de las alcaldías estén ocupadas en Euskadi por mujeres o que la media mundial de presencia femenina en los Parlamentos sea "apenas" de un 20%, muy lejos de la casi paridad -el 47%- del Parlamento de Bizkaia.

La muestra de la Sala de Exposiciones de las Juntas Generales, situada en la céntrica calle bilbaína de Hurtado de Amezaga, constituye una oportunidad única para buscar respuestas y apreciar las enormes posibilidades y el talento de Lide Kaltzada y Andrea Abalia, dos jóvenes artistas vizcaínas formadas en la Universidad Pública Vasca. Más allá del género, "Alter Ego" representa un ejemplo de "arte joven de calidad y gran proyección de futuro", según Madariaga. El visitante encontrará retratos de mujeres "muy críticas en el fondo aunque amables en las formas".

La exposición permanecerá abierta hasta el 6 de abril, de lunes a viernes, en horario sin interrupción de 9.00  a 21.00 horas, y los sábados por la mañana hasta las 13.30 horas.